

Haur, nerabe eta gazteen ekimenak eta parte hartzea sustatzeko zerbitzua



Servicio de apoyo a la participación
**y la iniciativa de la infancia,
adolescencia y juventud**

Egilea / Autor: gaztematika. www.gaztematika.eus.

Edizioa / Edición: 2015.

Lege gordailua / Depósito legal: SS-202-2015.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte



Haur, nerabe eta gazteen ekimenak
eta parte hartzea sustatzeko zerbitzua 4

Servicio de apoyo a la participación
y la iniciativa de la infancia,
adolescencia y juventud 30

Haur, nerabe eta gazteen ekimenak eta parte hartzea sustatzeko zerbitzua



1.go zatia

o. Ibilbidea 5

1. Zerbitzua. Xedea eta zergatia 7

- 1.1. Zergatik esku hartu haur, nerabe eta gazteen bizitzatan?
- 1.2. Zergatik Haur, Nerabe eta Gazteen Ekimenak eta Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzua?

2. Parte hartzea. Zerbitzua eta definizioa 11

- 2.1. Zerbitzua: harreman eragingarrirako elkargune, ekintza eta profesionalak.
- 2.2. Parte hartzea: helburua eta tresna.

3. Ekimenak eta Parte Hartzea sustatzeko zerbitzua 13

- 3.1. Zerbitzuaren atalak eta beren helburuak.
- 3.2. Hartzaile zuzenak, besteak eta eremu komunitarioa.
 - 3.2.1. Haur eta Guraso txokoak: guraso eta helduen jendarterako zehaztutako helburuak erdiesteko aukera bat.
 - 3.2.2. Beste profesionalekin koordinazio-sistema iraunkorra: hartzaile zuzenei arreta eskaintzeko modu egoki eta eraginkorra.
 - 3.2.3. Komunitate-eremu garatua: Sare-lan sistema komunitario batean kide izatea, bertan parte hartzea eta hori dinamizatzea.
 - 3.2.4. Barne antolaketa duen espazioa.
 - 3.2.5 Planifikatutako espazioa.
 - 3.2.5.1.Suspertzaileen egitekoak eta lan-funtzioak zerbitzuan.

2. zatia

4. Lan-tresnak 25

- 4.1. Parte hartzearen ikuspegitik lagungarri izan daitekeen ideia sorta.

5. Bibliografia 28

O

Ibilbidea

Esku artean duzun dokumentua talde-hausnarketaren fruitua da. Bertan honako hauek hartu dugu parte: Aia, Amezketak, Ataun, Itsasondo, Zegama zein Zestoako Suspertzaileek eta Bulego Teknikoak. Behin-behineko txostena da, orain arteko ibilbidea bildu asmoz sortu duguna, eta tresna eraginkorra izatea du helburu zerbitzuaren definizioa eragile ezberdinekin partekatzeko. Definizio-dokumentu irekia da, tokian-tokiko errealitatera egokitu beharrekoa eta, garatu ahala, moldatu beharko duguna.

Lantalde honek, hasiera-hasieratik, xede izan du suspertzaileen egunerokoari lotutako zerbitzu bat definitzea, euren udalerritarako baliagarria izateaz gain gainerakoentzat ere hala izan daitekeena. Definizioa osatzeko 12 saio parte-hartzaile egin ditugu 2012 eta 2013. urteetan zehar. Astiro-astiro egin dugun bideak, orain artean, honakoak ahalbidetu ditu: batetik, taldean sinergia eta konplizitateak sortzea, Gaztematikan Suspertzaileei leku bat eskai-

niaz; eta, halaber, zerbitzuaren definizioa osatzen joan ahala, gure zerbitzuak ere norabide horretan eraldatzeko lanean hasia.

Labur-labur hona hemen saio bakoitzean landutakoa:

- 1) Prozesuaren gaineko espektatibak jasotzeko eta definizio-zirriborroa eztabaidatzea.
- 2) Helburu orokorrak eta adin-tarte bakoitzeko helburuak adostea.
- 3) Zeharkako hartzaileekin egin beharreko lana definitzen hasia: haur eta gurasoen txokoak.
- 4) Maila komunitarioan lan egiteko estrategiak lantzea (1)
- 5) Maila komunitarioan lan egiteko estrategiak lantzea (2)
- 6) Erronka berriak identifikatzen: prozesuaren eta dokumentuaren ebaluazioa egitea.

- 7) Dokumentu berrirantz: espektatiben inguruko hausnarketa egitea.
- 8) Suspertzaileek zerbitzuan dituzten funtzioak zehaztea.
- 9) Aztertzea nola aditzera eman gure lana eta nola adierazi zein den zerbitzuaren funtsa.
- 10) Eredutik hurbilen den zerbitzua ezagutzea: Itsasondoko Parte Hartze Zerbitzua.
- 11) Zeri erreparatu gure zerbitzuetan harreman parekideak sustatzeko.
- 12) Ebaluazio orokorra.

Suspertzaileen eguneroko praktika eta errealitatetik eraikitako zerbitzua bada ere, iturri bibliografiko ezberdinetatik edan dugu definizio-dokumentua osatzeko. Sarrera honetan komenigarria iruditu zaigu jasotzea testua egituratzeko erabili ditugun erreferentzia nagusienak; nahiz eta, dokumentuan zehar aipamen zehatzak egingo ditugun. Honakoak izan dira taldean egindako hausnarketei forma eman eta horiek antolatzeke baliatu ditugun agiri nagusiak:

- **Gaztematika**: Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema (2009). Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

- **BERGUA**, Edorta eta **XIMENEZ**, Joxe (koord.) (2010): "Herritartasun aktiboa eraikitzen", Mesanotxean Bilduma 9.zenbk. Haur eta Gazteria Zuzendaritza Nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

- **FUNES**, Jaume (2010): Toki-eremuko Nerabeen Balio Anitzeko Zerbitzua zehazteko oinarriko dokumentua. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

- **OTAÑO**, Jesus (2013): Gazte-lekutik Nerabeen Balio Anitzeko Zerbitzurako prozesua egiteko dokumentu eta baliabideak. (argitaratu gabea).

- **FUNES**, Jaume (2013): Toki-eremuko Haurren Balio Anitzeko Zerbitzua zehazteko oinarriko dokumentua. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

- **AHEDO**, Igor (2008): "Parte hartze prozesuak abiatzeko metodologia-gida", Parte Hartuz ikerketa-taldea, EHU-UPV, Leioa. (argitaratu gabea)

1 Zerbitzua: Xedea eta zergatiak

Haur, Nerabe eta Gazteen Ekimenak eta Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzuaren xedea lurralde-mailako Sistema osoaren berbera litzateke: tokian-tokiko haur, nerabe eta gazteei eskaintza iraunkorra eskainiaz, haien haurtzaro eta gaztetasunaz gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea bermatzea, etapa horiek dituzten bidez zentzuetan (Gaztematika, 2009):

- a) Berezko balioa eta esanahia duen bizi-etapa gisa; hau da, etapa honetan nor bere bizitzako protagonista da, hiritartasun-eskubideei lotuta dago eta ehundura sozialaren behar-beharrezko zatia da.
- b) Gaitasun pertsonalak eta gizarte-loturak landuz, ikasiz eta indartuz, pixkanakako emantzipazio-prozesu bat izateko, hau da, heldutasunera arrakastaz eta asetasunez igarotzeko aukera ematen duen etapa gisa. Izan ere, heldutasunean lortzen da erabakiak hartzeko eta erabaki horiek bizi-proiektu pertsonal batean gauzatzeko autonomia-maila handiena.

Herritartasun aktiboa Sistemaren xede izateaz gain haur, nerabe eta gazteen oinarrizko eskubidea da. Eskubide horrek haur, nerabe eta gazteak aitortzen ditu euren orainaldian esku hartzeko subjektu eskubidedun eta gaitasundun gisa. Hau da, euren egunerokoa demokratikoki eta modu parte-hartzailean eraikitzeko eskubidea dutenak, garapen kolektiboan eraginez¹.

1.1. Zergatik esku hartu haur, nerabe eta gazteen bizitzatan?

Gaztematikaren arabera, adostasun zabal-lortu da haur, nerabe eta gazteen bizitzan esku hartzeko beharraren inguruan eta esku hartze hura arduraren publikoaren inguruan. Esku hartzeko premia areagotu egiten dute egungo jendarteak bizi dituen aldaketek eta horiek osatzen dituzten fenomeno konplexuek. Haur, nerabe eta gazteen bizitzatan

¹ Europako Batasunak 09/11/27an onartutako diktamenaren arabera, erakunde publikoen arduraren parte hartzea sustatzea. Hala dio besteak beste: "Apoyar diversas formas de <aprender a participar> desde una edad temprana tanto mediante la educación formal como el aprendizaje no formal"

indar berezia hartzen dute jarraian aipatzen diren fenomenoek, beste hainbaten artean:

- **Familiako eta komunitateko loturak ahuldu egin dira**, eta pertsonak, besteak beste, haurrek, nerabeek eta gazteek izan dezaketen gizarte-kontrola nahiz gizarte-laguntza gutxitu egin dira.
- **Nork bere biografia osatzeko hautabideak eta aukerak ugaritu egin dira eta, aldi berean, gizartean baztertuta geratzeko arriskuak handitu eta dibertsifikatu egin dira.**
- Gizarte-ehundura ugaritu eta polarizatu egin da, eta horrekin batera areagotu egin dira: batetik, aniztasuna (generoak, kulturak, belaunaldiak, etab.) aberasgarritasun iturri dena; eta bestetik gizarte-gatazkak eragiten dituzten desberdintasun bidegabeak.
- Haurrengan, nerabeengan eta gazteen gain irudi (onak eta txarrak) eta itxaropen zaharrak eta berriak (garapen moduan baina baita alienazio moduan ere) jartzen dira.

Aldaketa horiek guztiak eragina izan dute gizarte osoan: gizarte ehunduran -harreman sozialak sortu, mantendu eta egonkortzeko moduetan-; aniztasuna kudeatzeko modutan; eta baliabide zein botere-guneetara iristeko aukera anitz, desberdin eta desorekatuetan. Alegia, aldaketak eman dira eta ematen ari dira komunitate-mailan, talde-mailako hartu-emanetan eta norbanako-mailan.

Gaztematikak aipatu moduan, testuinguru honetan gizarte zibileko eragileek bai-eta administrazio publikoek indar handiagoz sentitzen dute honakoak eman eta eskaintzeko beharra: gertuko erantzunak; hurbileko baliabideak; eskaintza erakargarriak; etorkizuneko proiektuak; eta abar. Horiek guztiak haurren, nerabeen eta gazteen eskura egon behar dute laguntza, aurrerapen, dinamizazio, ikaskuntza, parte-hartze, loturen eraikuntza, eskubideen berdintasun eta, azken batean, sustapen moduan.

Haien pertsona eta herritar eraikuntza ezberdina izatea ahalbidetu nahi dugu: ingurune hurbilenean aurki ezin ditzaketen aukerak sortu ahal izateko; haien esperientziazko esperientzia bilakatzeko; eta haien bizitzan aurkituko dituzten arrisku egoerei autonomoki erantzuteko (Funes, 2010). Horretarako, eskuragarri jarri behar ditugu euren beharrak asetzeko ezinbesteko dituzten bitarteko eta baliabideak. Haurtzaroan, nerabeztarokoan eta gaztaroan eragin eta laguntzeak adin-tarte bakoitzari egokitutako arreta berezituak eskaintzea dakar. Horien arteko trantsizioak kontutan hartzearekin batera, adin-tarte bakoitzaren behar eta interesei modu koherente, jarraitu eta progresiboan erantzun behar zaie.

1.2. Zergatik Haur, Nerabe eta Gazteen Ekimenak eta Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzua?

Orain artean azaldu den moduan, toki-administrazioen ardura da haur, nerabe eta gazteen bizitzatan sortutako premiei hurbileko erantzunak ematea. Hain zuzen ere, haur, nerabe eta gazteen behar eta interesei arreta eskaintzea, alegia, herritar aktibo izateko eskubidea bermatzea. Hori dela-eta, Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sistemak honako helburu hauek zehaztu ditu (Gaztematika, 2009):

- Haur, nerabe eta gazteei, osotasunean, arreta eskaini nahi die.
- Eskaintza iraunkor eta koherentea izan nahi du.
- Gaztematikak aisiaren esparruan eragin nahi du, hezkuntza ez-formalaren ikuspegitik
- Erakundeen lidergoa izan nahi du haur eta gazteen eremuan
- Partaidetzaren aldeko apustua egiten du; haur, nerabe eta gazteek haiekin lotutako

erakundeen diseinu, gauzatze eta ebaluazioan parte hartzeko apustua.

- Toki-maila: hurbiltasuneko zerbitzuak eskaini nahi ditu udalerrri eta auzoetan.

Gaztematikak zerbitzu katalogo bat proposatu du helburu horiek guztiak ase asmoz: Haurren Balio Anitzeko Zerbitzua; Nerabeen Balio Anitzeko Zerbitzua; Gazteen Balio Anitzeko Zerbitzua; adin-tarte guztietarako Informazio Zerbitzua; eta Haur, Nerabe eta Gazteen Ekimenak eta Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzua. Azken hori da datozen orrialdeotan definituko duguna. Honela aurkezten du Gaztematikak definitu nahi dugun zerbitzu honen justifikazioa:

“Beren kasa antolatzen laguntzeko eta Sistemaren xedearen esparruan zentzua duten proiektuak, norbanakoenak nahiz taldeenak, abian jartzen laguntzeko. Beren kasa antolatzeak eta proiektu horiek burutzeak esperientzia atsegingarriak eta aberasgarriak ekarriko dizkiete eta, horrekin batera, beren emantzipazio-prozesurako entseguak eta aurrerapausoak izango dira. Haurren eta Gazteen Ekimenei Laguntzeko Zerbitzua bidea errazteko elementu bat da, ekimenak sortzen laguntzen duen eta euskarria eskaintzen duen laguntza-baliabide erabilgarri eta proaktiboa; gainera, ekimena sortzen ari denean eta ekimen hori garatu eta kudeatzeko prozesu osoan zehar jo daiteke zerbitzu honetara.” (Gaztematika, 2009: 44)

Hiru adin-tarteei arreta eskaini nahi dien zerbitzu bakar horrek, zuzen-zuzenean, bat egiten du herri txikietan gero eta nabarmenagoak egiten ari diren premiekin. Azken garaiotan, nagusitzen ari da herritarren parte hartze urriaren inguruko kezka lurraldeko hainbat herri txikitan. Parte hartze gabezia hori, nagusiki, herritarrek beste herri handiagoetarako duten joerak baldintzatzen du. Tokikoek alboko herri handietara jotzeko duten ohitura errotzen ari da; beste hainbat arrazoiren artean, jatorriko herrietan aurkitzen ez dituzten zerbitzuak aurkitzen baitituzte haietan.

Joera hori areagotu egiten da nerabe eta gazteen artean, herri txikien dinamizazio eta garapenerako aukera indargabetuz. Era berean, herri txikien baliabide (ekonomiko, espazial eta pertsonal) gabeziak behartzen gaitu herri horien bereizgarri eta bitartekoetara hobe egokituko diren zerbitzuak definitzera.

Herritarren parte hartzeak eta herritarren inplikazioak garrantzi handia dauka herri txikien dinamizazioan. Eta hori sustatu ahal izateko ezinbestekoa da ahalik eta herritar gehien bane hartuko dituen zerbitzuak eskaintzea. Nork bere tokian jasotako zerbitzuek, beste hainbat helburu badituzte ere, herritarren parte hartzea indartu eta herriarekiko atxikimendua handitzen dute.

Definitu nahi dugun zerbitzuak haurren, nerabe eta gazteen parte hartzea lantzeko asmoa du; modu iraunkor eta jarraian, txikitandik hasi eta heldutasunera bitartean. Herritar aktiboak helburu izanik; herriarekiko loturak sortu, sendotu, astindu eta eragin nahi ditu. Egungo haur, nerabe eta gazteen eskubideak bermatuz, herri txikien bilakaeran parte hartze aktiboa izango duten eragileen sorrera ahalbidetu nahi du.

2

Parte hartzea Zerbitzua eta Definizioa

Zerbitzuaren helburu eta egiturak zehazten hasi baino lehen komenigarria iruditu zaigu: lehenik eta behin, zerbitzu batez ari garenean zeri erreferentzia egiten diogun azaltzea; eta bigarrenik, parte hartzeaz ari garenean zertaz ari garen zehaztea eta horrek herritartasun aktiboarekin duen harremana azaltzea.

2.1. Zerbitzua: harreman eragingarrirako elkargune, ekintza eta profesionalak.

Haur, Nerabe eta Gazteen Ekimenak eta Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzua hezkuntza asmo argia duen planifikatutako eskaintza da: gizarte eta hezkuntzarako esku-hartzeko proposamena da. Gizarte-hezkuntzarako esku-hartzeaz ari garenean honakoa esan nahi dugu: subjektu dituen pertsonekin garatzen den esku-hartze profesionala, soziala eta hezigarria; hezkuntza-prozesu aldatzaileak sortzen dituen; funtsean harremanei dagozkien tresnen bidez, garapen pertsonala, soziala eta oro har komunitatearena sustatzen dituen; pertsonen, kolektiboen eta komunita-

tearen bizi-baldintzak hobetzeko intenzioiduna, egoera zailenei eta desabantaila sozialeko egoerei arreta berezia eskainiz (Otaño, 2013).

Zerbitzua hiru dimentsiok egituratu beharko dute esku-hartze hori bideragarria izan dadin: batetik, elkargune izango den ekipamenduak; bestetik, antolaketa zein ekimenetarako, jarduera, ekintza eta eskaintzak; eta azkenik, esku hartzen duten profesionalak (Funes, 2010). Hiru dimentsio horiek harreman eragingarri bat sortzeko aukera eskainiko dute, zerbitzuak dituen helburuak gauzagarri eginaz.

Era berean, ezin ahaztu dezakegu zerbitzua haur, nerabe eta, gazteen aisialdi denboratan eskaintzen dela, eta oinarrian aisia hezitzailea duela. Hau da modu esplizituan gozamena eta pertsonaren garapen librea helburu duen aisia (Berrio-Otxoa, Hernandez eta Martinez, 2003). Beraz, bertatik abiatutako ekimen orok izaera ludikoa izan beharko du; haur, nerabe eta gazteen behar zein eskaerak aintzat hartuz horien gozamenera zuzenduz.

2.2. Parte hartzea: helburu eta tresna.

Herritar aktiboak sustatzea xede duen zerbitzu batez ari garenez, ezinbestekoa da herritartasun aktiboaren eta parte hartzearen arteko harremanari arreta eskaintzea. Bederatzigarren Mesanotxearen (Bergua eta Ximenez: 2010) arabera, herritartasun aktiboa sustatzeak hiru elementu ezberdin bultzatzea dakar:

- **Norbanako-mailan autonomia sustatzea: Norbere burua antolatu eta izateko/egiteko aukera eta gaitasunak izatea.**
- **Talde-mailan dimentsio aktiboa sustatzea:** Gizabidezko jarrera, jendartearekiko konpromisoa eta errealitatearekiko espiritu kritikoduna.
- **Komunitate-mailan jendarteko aldaketa-prozesuetan inplikatzeko gaitasuna izatea.**

Bien bitartean, horrela ulertzen dugu parte hartzea: norbanakoek (besteekin batera) beren ingurua eta harremanak aldatzeko duten gaitasuna da, beraien bizitzarekin zuzenean hala zeharka eragina duten baldintzetan eragin nahi izanik, erabakiak hartu eta beraien garapen pertsonal, nahiz kolektiboa ahalbidetuz.

Horrela, herritartasun aktiboa sustatzea eta parte hartzea bultzatzea elkar uztartzen diren kontzeptu eta metodologia bezala ulertzen ditugu. Biak hala biak, helburu eta bide dira. Komunitate baten parte diren, parte hartzen duten eta horren dinamizazioan eragile diren herritarrak nahi ditugu; eta, horretarako, komunitatean txertatutako zerbitzu baten beharra dugu, haur eta gazteak komunitatean parte har dezaten eta bertako eragile izan daitezen. Hain zuzen ere, Gaztematikan herritartasun aktiboa eraikitzeke bi ikasketa-tresna nagusi erabiltzeko hautua egin da: herritarren parte hartzea aktiboa eta herritartasun aktiborako hezkuntza.

- **Herritarren parte hartze aktiboa:** parte hartzen parte hartuz ikasten delako, eta parte hartzea bera ikasketa-prozesu iraunkor gisa ulertzen dugulako.
- **Herritartasun aktiborako hezkuntza:** Parte hartu ahal izateko gaitasun eta kompetentzia jakin batzuk garatzeko aukera izan behar dugulako. Ezinbestekoa da hezkuntza ez formalaren bitartez, herritartasuna egikaritzeko beharrezkoak diren gaitasunak, jarrerak eta aukerak ahalbidetzea. Nolabait, norbanakoek eta kolektiboek parte hartze aktiboa garatzeko dituzten aukeren artean desoreka nabarmenak daudelako: bazterkeria egoerak bizitzeko arriskuak handitu direlako; eta generoak, klaseak, hizkuntzak, etniak, funtzio aniztasunak eta abarrek eragin zuzena dutelako. Hain zuzen ere, hezkuntza bihurtu da, desoreka eta desberdintasun horien aurrean, aukera berdintasuna sustatzeko gako nagusienetakoa. Eta hori bideragarri egiteko, ezinbestean, hurbileko profesionalen beharra dugu.

3

Ekimenak eta Parte Hartzea sustatzeko zerbitzua

Helburu orokorrak eta zehar-lerroak

Haur, Nerabe Eta Gazteen Ekimenak Eta Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzuak honako helburu orokorrak ditu:

HELBURU OROKORRAK

Norbanako mailan: Autonomia sustatzea

- 1.1 Autonomia eta erantzukizuna: Nortasun pertsonalaren garapena eta gizartean toki aktiboa izateko gaitasuna bermatzea.
- 1.2 Haur, nerabe eta gazteengan eskumenak garatzea autonomia pertsonalaren eta kolektiboaren mailak lortzeko, aukera berdintasuna bermatuz. (eskumenak: arrazoizko jakin-mina, komunikazio enpatikoa, errespetua etab.)

Talde mailan: Konpromisoa eta jarrera kritikoa

- 2.1 Partaidetza kolektiborako sentimendua garatzea.
- 2.2 Gazteei euren aniztasunean laguntzea, euren gizarte parte hartzeko modu eta forma ezberdinak onartuz.
- 2.3 Berdinen arteko erlazio eraikitzaileak garatzea, beraien artean sareak sortzea.

Komunitate mailan: aldaketa-prozesuetan inplikatzeko gaitasuna

- 3.1 Herriko parte-hartzea duintzea.
- 3.2 Tokiko eremua erakundeen elkarriketarako eremu pribilegiatu gisa hautatzea.
- 3.3 Eremu publikoarekiko kezka sortaraztea.
- 3.4 Udalerrian haur, nerabe eta gazteen errealitatea ezagutaraztea eta hauek herriko eragile gisa ikusgarri egitea.

Helburu orokor hauek osatu asmoz, hautua egiten dugu jendartea zeharkatzen duten eta horrek eraikitzen dituen aniztasun eta desoreka egoerak kontuan hartzeko. Parte hartzeko aukera berdintasuna bermatu ahal izateko ezberdintasun egoera hauek orekatzeko asmoarekin lan egin behar da, baita oztopo gehien dituztenak kontuan hartuta lan egin ere. Genero-aniztasuna, kultura-aniztasuna, hizkuntza-aniztasuna, funtzio-aniztasuna eta abarrak kontuan hartzea ezinbestekoa izango da helburu orokor horiek modu egokian landu eta asetzeko. Norbanako guztiak biltzea eta elkarri eragitea bultzatuko da; aniztasunean elkarrekin bizitzen ikastea, eta, hala, gozatzea. Horrek aniztasunak kudeatzeko prestatuko dituzten gaitasunak eskuratzera eta garatzera behartzen ditu eragileak, bereziki profesionalak.

Berdintasuna, ekitate eta aniztasuna elkar osatu eta indartzen diren printzipio eta balioak dira, eta horiek, era berean, zerbitzuaren atal, eragile, ekintza eta jardunbideak orientatu, dinamizatu eta zentzuz hornitzen dituzte (Gaztematika:2009). Honako hauek dira zerbitzurako proposatutako zehar-lerroak:

Zehar-lerroak

- a) **Euskararen normalizazioa:**
- b) **Aniztasuna:** Kultura-aniztasuna eta funtzio aniztasuna kontuan harturik gizartean parte hartzeko aukera berdintasuna sustatzea.
- c) **Parekidetasuna:** Generoari dagozkion desberdintasunak gainditzeko bitarteko, ekintza eta jarduerak sustatzea.
- d) **Aisialdiaz gozatzea eta ondo pasatzea:** Astialdiaz gozatzea, modu aktiboan, partaidetzazkoan, sortzailean, osasungarrian eta ongizate emozionala ahalbidetzekoan.

Arestian aipatu dugun moduan, hiru adin-tarteei arreta eskaintzen dien zerbitzu bakar batez ari gara. Hau da, bost eta hogeita hamar urte bitarteko haur, nerabe eta gazteei zuzendutako arreta publiko iraunkor, koherente eta jarraitua. Ludikotasuna ardatz hartuta, haurren (5-11 urte), nerabeen (12-17 urte) eta gazteen (18-30 urte) bizi-aldi bakoitzari egokitutako behar eta eskaerei zein horien arteko trantsizioei arreta eskainiko diena.

Zerbitzuaren helburu orokorren arabera, helburu dugu parte hartze eta parte hartzerako hezkuntzaren bitartez gazteak gizarte-aldaketatan inplikatzeko sustatzea. Hori horrela, zerbitzuak txikitandik hasita heldutasunerainoko autonomia mailak garatu beharko ditu, ahalduntze prozesu jarraituaren bitartez.

Autonomia-mailak, parte hartzea eta ahalduntzearen arteko loturak azaltzeko Rodríguez-García eta Macinko (Krasuskopf, 2000) eginiko sailkapena erabiliko dugu. Autore horiek informaziotik parte hartzera doan progresioa zehazten dute, era berean, baliotatik konpromisora eta iritzi-metaketatik ahalduntzera doana. Azken hori, erabakiak hartzeko gaitasunarekin eta ekimenak aurrera ateratzeko inizatibarekin lotzen da. Mailakatze horrek zerbitzuaren helburuekin harreman zuzena du, parte hartzea, konpromisoa eta autonomia mailaren arabera zehazten baititu ahalduntze etapa ezberdinak. Krasuskopf-en arabera, bost pausutan oinarrituko litzateke mailakatzea. Hona hemen:

Autonomia eta Ahalduntzea:

Haur, nerabe eta gazteek euren proiektu eta proposamen propioak garatzen dituzte, helburuak, metodologiak eta kodigo berritzaileak. Babesa eta aholkularitza bilatzen dute beharrezko zaienean.

Ekintzaren Ekimena:

Parte Hartzea, Konpromisoa eta Ahalduntzea dago. Haur, nerabe eta gazteek hezitzaile edota beste eragileekin batera zehazten dituzte helburuak, lehentasunak, egiten dituzte planifikazioak, ebaluazioa egiten eta emaitzen erantzule egiten dira.

Informazio Hornitua:

Parte Hartzea dago eta Konpromisoa has liteke. Haur, nerabe eta gazteek feedbacka ematen dute helburuak eta emaitzak hobetze aldera.

Kontsultatuak:

Parte hartzen has litezke. Haur, nerabe eta gazteei feedbacka eskatzen zaie, baina erabakietan eragina izango duten edo ez, ezagutu gabe.

Informatuak:


Haur, nerabe eta gazte taldeetatik at zehazten dira hauen programetarako helburuak.

BOTERETZE - MAILAK

3.1. Zerbitzuaren atalak eta bakoitzerako helburuak

Haur, Nerabe eta Gazteen Ekimenak eta Parte Hartzea Sustatzeko Zerbitzuak azken helburu izan beharko ditu sailkapen horren ahalduntze maila altuenak, eta hori lortzeko tresna izango da ekimenak sustatzea. Horretarako, zerbitzuaren atal ezberdinetan adin-tarte bakoitzeko bereizgarriei egokitutako parte hartze mailatik hasi beharko gara lanean. Maila bakoitzak gaitasun eta aukera ezberdinak eskaintzen ditu, baita norbanakoak taldean garatu beharreko eskuduntza ezberdinak ere.

Adin-tarte guztiei arreta eskaini nahi dien zerbitzua horrela antolatzea proposatzen dugu:



Zerbitzuaren helburu orokorrak, zehar-lerroak eta lortu beharreko ahalduntze mailak azaldu ostean, beste urrats bat eman nahi genuke: atal bakoitzerako eta adin-tarte bakoitzerako helburuak definituko ditugu. Helburuok, helburu orokorrak bezalaxe, herritartasun aktiboa xede, hiru mailatan antolatu ditugu: norbanako-mailan, talde-mailan eta komunitate-mailan.

	1. Norbanako mailan: Autonomia	2. Talde mailan: konpromisoa eta jarrera kritikoa	3. Komunitate mailan: Aldaketa Prozesuetan Inplikatzeko Gaitasuna
Haurren atala	<ul style="list-style-type: none"> • Protagonismoa haurri berari ematea, zertan eta nola jolastu nahi duen berak erabaki dezan. • Haurrek beraien gustuak adierazi ditzatela. • Haur bakoitzak bere iritzia izan dezala. • Adinean aurrera doazen bezala ardura handitu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Jolasteko aukera izan dezatela, bakarka, nahiz taldean. • Jolas berriak eta jolasteko modu berriak ikasi. • Aukera berdintasuna bermatu. • Harremanak sortu eta sendotu. • Gizarteratzeko harremanak garatzea. • Trebetasun sozialak garatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Komunitateko ekintzetan parte hartu dezatela. • Haurrek bizi diren ingurua ezagutu dezatela. • Herri sentimendua handitu.

	1. Norbanako mailan: Autonomia	2. Talde mailan: konpromisoa eta jarrera kritikoa	3. Komunitate mailan: Aldaketa Prozesuetan Inplikatzeko Gaitasuna
Nerabeen atala	<ul style="list-style-type: none"> • Nerabe-izaerak modu positiboan gauzatzeko aukera erraztea. • Beren nerabe-izaerak ulertzen eta kudeatzen laguntzea. • Arriskuen kudeaketaren ikaskuntza lantzea. • Jakin-nahia eta oinarritzko informazioa erraztea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Trantsizioak erraztea (haurtzarotik nerabearora eta nerabearotik gaztarora), erritmo eta egoera desberdinak kontuan hartuta. • Talde-bizitza eta taldeen arteko harremanak sustatzea, suspertzea. • Beraien proposamenak jaso eta erraztea. • Ideien sorkuntza eta hedapena suspertu eta ahalbidetzea. • Nerabeen arteko ezagutza ahalbidetu eta aniztasuna kudeatzea. • Errealitate hurbila ezagutzera, ulertzera eta nola aldatu pentsatzera bultzatzea. • Denbora betetzeko modu desberdinak, suspergarriak eta sortzekoak, ahalbidetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Harreman eragingarri bat sortzeko prest dauden heldu onuragarriak nerabeen eskura jartzea. • Guztion gaietan parte hartzen duten subjektu aktibo sentiaraztea.

Gazteen atala	1. Norbanako mailan: <i>Autonomia</i>	2. Talde mailan: <i>konpromisoa eta jarrera kritikoa</i>	3. Komunitate mailan: <i>Aldaketa Prozesuetan Inplikatzeko Gaitasuna</i>
	<ul style="list-style-type: none"> Informazio eta orientazioa: Haien beharrak asetzeko baliagarria zaien informazioa eskuratzeko orientazioa eskaintzea. Esperientzia berriak, bizi, ezagutu eta aukeratzeko mugikortasun programak eta erreferentzien inguruko informazioa eskuragarri egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> Garatu nahi dituzten proiektuak gauzatu ahal izateko bitartekoak eskuragarri egitea. Herriz gaindiko berdinen arteko sareak sustatzea, errealitate ezberdinak ezagutu, bizi, konpartitu eta aniztasunean aukera ezberdinen artean aukera ahalmena izan dezaten. 	<ul style="list-style-type: none"> Herri sentimendua indartu eta lantzea, herri lotura manten dadin. Herriko eragile eta pertsona ezberdinen arteko sare lana sustatzea. Herriko eragile aktibo izan daitezen sustatu; elkartetako parte izan daitezen, herriko ekintza ezberdinetan parte har dezaten ahalbidetuz edota gazte talde bezala antola daitezen sustatuz. Gazte eta Udalaren artean bitartekaritza lana egitea, hauen arteko harreman eta komunikazioa ahalbidetzeko.

Definitutako helburu horiekin zerbitzuak izan beharko lukeenaren inguruko gida bat eskaini nahi dugu atal bakoitzerako, besterik ez. Helburuok etengabe birmoldatu beharko dira udalerrri bakoitzean, tokiko errealitatearen arabera eta zerbitzuaren hartzaile diren horien beharren mesedetan.

3.2. Hartzaile zuzenak, besteak eta eremu komunitarioa

Orain artean birritan esan moduan, zerbitzuaren hartzaile zuzenak herriko haur, nerabe eta gazteak dira. Zera adierazi nahi dugu honekin:

- Haur, nerabe eta gazteei arreta eskaini behar diegula, beren adin-tarteari ematen dioten modu eta zentzuan: haurtzaro, nerabezaro eta gaztaroa bizitzeko modu anitzak ahalbidetuz; adin-tarteak berezko dituen jokabide, interes eta beharrei egokituz.
- Haur, nerabe eta gazten eraikuntza positiboak sortu nahi ditugula.
- Haur, nerabe eta gazte oro dela zerbitzuaren hartzailea.

Horretarako kontuan izan behar dugu arreta-subjektua, adin-tarte bakoitzean, taldea dela, eta horiez arduratuko dela zerbitzua. Talde horiek zerbitzuak berak sustatu, dinamizatu eta onartzen dituenak dira. Hartzailea udalerrriko haur, nerabe eta gazte oro dela diogunean, hau diogu: zerbitzuak bere izaera publiko eta unibertsala bermatu ahal izateko, etorritakoak eta etorri gabekoak kontuan izanik lan egin behar duela; eta elkargune edota ekipamendutatik at, herriko beste espazioetan ere presentzia izan behar duela; hala nola, kallean, txokoetan, eskolan, plazan, frontoian eta abar. Hain zuzen ere, horrela bihurtuko baita haur, nerabe eta gazteen tokiko erreferentzia-zko eremua (Funes, 2010).

Haur, nerabe eta gazteen beharrei erantzun ahal izateko behaketa eta haien parte hartzeaz gain, ezinbestekoa izango da: batetik,

haur, nerabe eta gazteen familien ezagutza izatea eta hauen beharrei erantzuna ematea; eta bestetik, sarean lan egitea udalerrian horiez guztiez arduratzen diren pertsonekin. Alegia, haur, nerabe eta gazteen mesedetan jarduteko ezinbestekoa da haiengan eragina duten eragile guztiekin koordinatuta lan egitea. Hori dela eta, zerbitzuak honako helburuak zehazten ditu gurasoekiko zein haur, nerabe eta gazteekin lan egiten duten profesional eta eragileekiko (Funes, 2010):

Guraso eta helduen gizartearekiko:

- Helduen gizarteari haur, nerabe eta gazteek haurtzaro, nerabezaro eta gaztaroaren aldi hori bizitzeko dituzten moduak ulertaraztea.
- Haur, nerabe eta gazte izaera desberdinen normalizazioa ahalbidetzea.
- Gurasoekin, beste profesional batzuekin haur eta nerabeak aktiboki hezteko modu egokiak lantzea.

Beste profesionalakiko: besteak beste, eskola, gizarte zerbitzuekiko...

- Beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin haiei arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortu eta partekatzea.
- Sare lan-sistema komunitario baten kide izatea, bertan parte hartzea eta hori dinamizatzea.

3.2.1. Haur eta Guraso txokoak: guraso eta helduen jendarterako zehaztutako helburuak erdiesteko aukera bat.

Zerbitzuak gurasoekin batera lan egiteko aukera ezberdinak baliatu behar ditu, besteak beste: zerbitzura datozen haur eta nerabeen gurasoekin; guraso elkarrekin; eta antolatu gabeko gurasoekin. Hori

horrela, azken garaiotan, lanketa hori egin ahal izateko aukera gisa antzematen dugu lurraldeko hainbat herrietan sortutako haur eta guraso txokoez baliatzea. Haur, nerabe eta gazteen atalak antolatutakoan, haur eta guraso txokoak zerbitzuaren osagarri izan daitezkeela uste dugu.


Ustez, haur eta guraso txokoak aukera gehiago eskaintzen dute sustapena lantzeko baino, gurasoen arteko hartu-emanak landu, haien parte hartzea sustatu eta seme-alabekiko dituzten jakin-min eta formazio beharrak asetzeko.

Haur eta guraso txokoak 0 eta 5 urte bitarteko haurren eta bere gurasoen aisialdi zein sozializaziorako espazio moduan hautematen ditugu. Izan ere, Jaume Funesen (Funes, 2013) hitzak gure eginaz, horiek haurtzaro txikia eta lehen haurtzaroko urteak liriateke. Ziklo homogeenok ez izan arren, lehen urte horietan, familiarekiko loturak eta oinarritzko estimulaziotarako sarbideak dira nagusi haurren arretan. Hori horrela, haurren eskubiak babeste aldera, txokook aukera eskainiko ligukete gurasoek euren seme-alaben hezieran beharrezko dituzten ezagutza eta gaitasunak lantzeko.

Gurasoek beren kasa egituratu, antolatu eta kudeatutako espazio gisa irudikatu ditugu haur eta guraso txokoak. Modu autonomoan, profesionalen presentzia iraunkorrik gabe antolatutako sozializaziorako espazio gisan. Hala bada, zerbitzuaren osagarri izan daitezkeela uste dugu, aukera guzti hauek eskaintzen ditzutelakoan:

- Herri txikietan 0 eta 30 urte bitarteko arreta eskaintzeko aukera ematen digulako modu jarraituan.
- Udalerriko guraso eta haurrekin txikitandik lan egiteko aukera eskaintzen duelako.
- Gurasoen parte hartze eta inplikazioa ahalbidetzen duelako, komunitate-loturak sortu eta eraginaz.

- Zerbitzuan lan egiten duten profesional eta gurasoen arteko koordinazio jarraitua lantzeko aukera eskaintzen digulako: haurren hezieran haiek izan ditzaketen beharrak antzeman eta horiei erantzuna emateko aukera eskaintzen duelako.
- Gurasoekin zerbitzuaren xedea, jarduerak eta zentzua lantzeko aukera eskaintzen digulako, txikitandik harreman eragingarri positiboak sortzeko aukera ahalbidetuz.



Hori hala bada ere, haur eta guraso txokoak zerbitzuaren osagarritzat joko ditugu, honako baldintza hauek betetzen dituztenean:

- Auzo edota lurraldeko haur eta guraso orok bertan parte hartzeko aukera duenean.
- Gurasoak espazioaren erabiltzaile soil baino eragile bihurtzeko prestutasuna agertzen dutenean.
- Zerbitzuko profesionalekin koordinazio-sistema jarraitua sortzeko prest daudenean.

3.2.2. Beste profesionalekin koordinazio sistema iraunkorra: hartzaile zuzenei arreta eskaintzeko modu egoki eta eraginkorra.

Sarreran aipatu dugun gisa, gizarte eta hezkuntzarako esku-hartzeaz ari gara; hau da, ingurura egokitzeko ezagutza, trebetasun, gaitasun eta jarrerak eskuratzeaz. Zerbitzuaren xedea bere hartzaileen beharren araberrako erantzunak eskaintzea da. Horretarako, zerbitzuak bi norabideetan egiten du lan (Otaño, 2013):

- Batetik, pertsonak garapen-testuinguruetara moldatzeko saiakera egiten du.
- Bestetik, baliabide eta zerbitzuak pertsonen (zein talde eta herritarren) beharretara egokitzeko ahalegina.

Hori gauzatu ahal izateko, zerbitzuak koordinazio-sistema iraunkor bat sortu beharko du, hartzaile zuzenekin lan egiten duten beste profesional eta zerbitzuekin batera. Ezinbestekoa izango da hori, haur, nerabe eta gazteen arretan zerbitzuak udalerriko erreferentziako espazioa izan nahi badu; hain zuzen ere, zerbitzu osagarri, partekatua eta zailtasun egoeran dauden alde lan egiten duena izan nahi badu.

Koordinazio-sistema osatu ahal izateko oso garrantzitsua da zehaztea norekin egin eta nola lan egin. Datozen lerrootan, galdera horiek zehaztasun osoz erantzungo ez baditugu ere, bakoitzaren inguruan ideia orokor batzuk eskaini nahi ditugu.

Norekin koordinatu behar dugu:

- Haur, nerabe eta gazteen arretan diharduten zerbitzu edo baliabideetako profesionalekin.
- Koordinazioa unean uneko eta tokian tokiko errealitateak baldintzatuko duen arren, gomendagarria litzateke -duten izaeragatik- honakoekin lan-ildo egonkorak abian

jartzea: gizarte zerbitzuekin; eskolarekin; eta, baleude, beste zerbitzu-sistemekin (parte hartzea, kultura, berdintasuna, kirola, lankidetzak eta abar.) baita sustapen arloko baliabide komunitarioekin ere (astaldi taldeak; gazte elkarteak eta abar.)

Esan berri dugu koordinazioaren helburua hartzaile zuzenen beharrei erantzuna ematea dela; betiere, zerbitzuaren xedeak zehaztutako norabidean (Otaño, 2013). Nola egin hori?

- Eragile bakoitzarekin koordinazio-eredu eta -proiektu bat sortuz; propioa, adostua, helburu argiduna eta jarraitua.
- Horretarako argi zehaztu beharko dira: zerbitzu bakoitzeko erreferenteak, koordinazioaren edukiak -hartutako akordioak eta eginbeharrak-, koordinaziorako denborak, eta espazioak.
- Koordinazioaren eraginkortasuna bermatzeko, besteak beste, komeni da hauek kontuan hartzea: elkar ezagutzarako denborak beharko ditugula; elkarri egiten diogun eskaera ezagutu behar dugula; behaketa partekatua bitartez, zer egin edota zer ez egin erabaki behar dugula; eta jardunbide edota ekintza bateratuak zehazteko aukera baliatu beharko dugula.

3.2.3. Komunitate-eremu garatua: Sare-lan sistema komunitario batean kide izatea, bertan parte hartzea eta hori dinamizatzea.

Komunitatea horrela ulertzen dugu: lurralde jakin gisa; bertan bizi diren pertsona guztiek zein talde, elkarte, baliabide eta zerbitzuek osatzen dutena; eta elkarren artean sortzen diren sare eta harremanek.

Zerbitzuak, administrazioaren zerbitzu publiko den heinean, jendarteak sortzen dituen desoreka-egoera eta oztopoak orekatzeko lan egin behar du. Halaber, gizarte-hezkuntza asmoa duen zerbitzu batez ari garenez, hori

ikuspegi komunitario batetik egin behar du; alegia, aldaketak eragin behar ditu haur, nerabe eta gazteen bizitzatan zein horietan eragiten duten testuingurutan (Otaño, 2013). Horrela, zerbitzua izango da:

- Komunitatearen parte den zerbitzua: udalerrri jakin bateko hurbileko zerbitzua eta herriko bilakaeran presentzia jarraitua duena.
- Haur, nerabe eta gazteen protagonismoa ahalbidetzen duena: zerbitzuak komunitateko ekimen eta jardueretan parte hartu behar du.
- Eta lurraldeko dinamizazioan arituko dena: sarean lan eginez, tokiko sareak eraiki, eragin, mugiarazi eta egonkortuz.

Zerbitzuak sare-lan sistema komunitario baten kide, eragile eta dinamizatzailerik izan behar duela diogu:

- Haur, nerabe eta gazteen beharrei egokitu-tako erantzuna eskaini behar duelako.
- Haur, nerabe eta gazteak garapen testuinguruetara egokitzea helburu duelako.
- Zerbitzu eta baliabide ezberdinak haur, nerabe eta gazteen beharretara ere moldatzeko.
- Herritartasuna garatzeko parte-hartze erreal eta aktiborako aukerak eskaini behar dituelako.
- Komunitatearen lorpenen eta garapenaren parte izan beharko lukeelako.

Zerbitzuak komunitate-eremu garatua izan beharko du zerbitzu prebentibo, integral eta integratzailea izan nahi badu, eta, era berean, eragin nahi badu herri mailako parte-hartze sareetan. Izan ere, zerbitzuak lan egingo du komunitateari ardura hauek itzuli ahal izateko: bere garapen propioaren ardura, baita haur eta nerabeen prozesu hezitzaileen ardura bera ere. Zertarako:

- Komunitateak bere gain har dezan haur eta nerabeen behar indibidual zein kolektiboei erantzuna emateko ardura.
- Komunitateak behar horiei erantzuna eman asmoz haur, nerabe eta gazteen eskura jar ditzan heziketarako espazio askatzaile zein parte hartzaileak.

Hori guztia bideragarri egiteko aukera eta bide ezberdinak ahalbidetuko dira: herriko eragile, talde eta norbanakoak ezagutu, haiekin elkar-lanean jardun eta elkarrekin parte hartzea lantzeko. Azken batean, sare lan-sistema komunitario baten kide izateko herritar zein gizarte eragileen elkargune edota foroetan parte hartu beharko dugu, ekimen ezberdinak ezagutu, aurkeztu edota sustatu ahal izateko; betiere, zerbitzuak helburu dituen horiek erdiesteko.

3.2.4. Barne antolaketa duen espazioa

Era berean, haur, nerabe eta gazteen ekimenak eta parte hartzea sustatzeko zerbitzuak barne antolatutako espazioa behar du izan. Horrekin honakoa adierazi nahi dugu:

